

IGERIKETAREN ARIAK HERNANIN EZ DU ETENIK

Iñigo Goñi Iradi

Hernanin igeriketak badu bere historia interesgarria. Taldea 1984 urtean Elorrabi izenarekin sortu zen eta 37 urte hauetan izen nabarmenak eman ditu: Luis Goñi, Iñigo Goñi, Olatz Altuna, Mañel Aizpurua, Maitane Danborena, Itsaso Tolosa eta Enaitz Goñi esaterako.

Hego Euskal Herrian igeriketak garapen ezberdina izan zuen XX. mendean zehar. Hiriburuen bueltan garatu zen Iruñean, Donostian, Bilbon eta Gasteizen edo kostako herri konkretu batzuetan, itsasoari lotuak; Getxo, Zarautz edo Santurtzi esaterako. Barrualdeko herrietara igeriketa beranduago, kiroldegi eta barruko igerilekuen eraikuntzarekin batera, iritsi zen batez ere 70, 80 eta 90eko hamarkadetan. Hernani ez zen salbuespena izan. 60.eko hamarkadan Jose Antonio Elola Olaso zen Espainiako Kirol Zuzendaria eta Hernanin puntako instalakuntzak eraikitzearen alde zegoen, baina ez zen posible izan eta Ordizia eta Tolosako herriek eman zituzten inbertsio horiek. Honela, urte batzuk itxaron behar izan ziren Hernanin kiroldegia inauguratzeko. Azkenik, 1983. urtean Juanjo Uria alkate zela eta Ricardo Mendiolak kargua hartzeaz zuela inauguratu zen. Carlos Garaikoetxea lehendakariak parte hartu zuen inaugurazio ekitaldian, nahiz eta igerilekuak oraindik ez egon amaituta. Hortik hilabete gutxira zabaldu ziren igerileku handia eta txikia. Handia bost kalekoa, 25x10, eta berritzailea, hondoa sakona baitzuen, gutxienekoan 1,80 metro, waterpolora jokatzeko egokia.

Jose Luis Fernández Arregi, aitzindaria

Hala ere, nahiz eta igerilekurik eta igeriketa klubik ez egon, Hernanin baziren igerilariak. Donostiako taldeetan aritzen ziren eta maila oso altuan ibilitakoak ere baziren. Aitzindariak izan ziren Jose Luis Fernández Arregi eta anaia Mikel Fernández Arregi. Osiñagako anaiak Easo taldekoak ziren eta ondoren Michelin taldera egin zuten salto. Jose Luis Fernández Espainia mailan ibili zen igeri. Espainiako

Txapelketetan aurrean ibiltzen zen eta adineko errekorrak izatetik gertu izaten zen. Bere taldekide eta adin hantzekoa zuen Iñigo Etxaniz donostiarra edota Harri Garmendia besaiandarrarekin, olinpikoa Los Angeles 1984an eta Seul 1988an, aritzen zen lehia estuan. Garmendia Euskal Herriak bere historian izan duen igerilaririk onena da Ricardo Aldabe nafarrarekin batera eta Iñigo Etxanizek Madrilgo Mundialetan parte hartu zuen 1986 urtean. Jose Luis krol, bular eta estilo probetan zen espezialista eta 100 metro librean minututik jaitsi zuen lehenengo hernaniarra izan zen. Igerilari goiztiarra izan zen eta berak zioen bezala entrenamendu saio gogorregiak “erre” egin zuten. Oso gazte amaitzen zen igerilarien kirol ibilbidea urte horietan eta hernaniarrarena oraindik eta lehenago iritsi zen amaierara zer nolako maila zuen kontuan hartzen bada.

Elorrabi, Hernaniko taldearen lehenengo izena

Igerilekuen zabalkundearekin handik eta hemendik igeriketa taldeak sortu ziren eta Hernanin ere taldea sortzeko proiektua jarri zuten abian Arantxa Urbietak eta Iñaki Iurramendik. 1983 urtea zen, baina taldea oraindik ez zen eratu. Horretarako igerilariak behar ziren, kirol zuzendaritza eratu, izena pentsatu eta behar ziren pauso guztiak eman.

Iñaki Iurramendi eta Arantxa Urbietak donostiarrak, Hernaniko igerilekuan hasi ziren lanean igeriketa irakasten. Monitorea ziren eta igerilari ohiak. Iñaki Iurramendi Espainiako txapelkun izandakoa eta Gipuzkoako kirolari onena ere aukeratua 70.eko hamarkadako urteren batean. Igeriketa utzi eta gero saskibaloijokalar bihurtu zen eta *Askatuaken* jokatu zuen Lehenengo Mailan. Arantxa Urbietak ere igerilari izandakoa eta aurten hartu du jubilazioa kiroldegian. Taldeko “alma mater”ra izan zen Arantxa eta bere eskuetatik milaka hernaniarrek ikasi dute igeri. Herriko gazteei probak egiten hasi ziren eta aurreneko pausoa eman zen, igerilariak izatearena. 1984an hasi zituzten entrenamenduak hilabete batzuk au-

rretik zabaldu zen igerilekuan eta hurrengo pausoa taldea eratu, forma eman eta izena bilatzea izan zen, txapelketetan parte hartzen hasteko. Izena auke-ratzekoan kontutan hartu zen hernaniar askok eta askok ordura arte non ikasten zuten igeri egiten eta Elorrabin ikasten zela jakina zen. Honela, taldearen lehenengo izena Elorrabi izan zen. Oso egokia, igeri egiteari eta Hernaniri oso lotua zegoela kontuan hartuz gero. Lehenengo kirol zuzendaritzan zeuden Iñaki Iurramendi, presidente, Arantxa Urbietak, Jose Luis Goñi, Jesus Sarasola eta Segundo Alejos. Igerilarien artean besteak beste Jesús Martínez, Xabier Balerdi, Gurutze Urigoitia, Ainhoa Quirce, Eduardo Vázquez, Monica Porto, Ibon Zabala, Luis Goñi, Unai Moraza, Unai Garmendia, Miren Zabala, Mila Cuenca, Maria Jesus Pastor... Lehenengo txapelketak 1985 urtean hasi zituzten eta taldeak garapen handia bizi izan zuen hilabete gutxitan.

Herri askotan ari ziren taldeak sortzen eta modan jarri zen kirola zen igeriketa. Talde ezberdinetan banatu ziren igerilariak adinaren arabera. Arratsaldeko 08:30etatik 10:00etara nagusiek entrenatzen zuten Iñaki eta Arantxarekin eta 18:30etan gazteagoek. Hernani 50 igerilaritik gora izatera iritsi zen urtebetean. Inguruko herrietatik ere etortzen ziren horien artean Errenteriatik Mendoza anaiak, Errenteriako alkate izan den Julen horietako bat, aita hernaniarra izaki; Andoainetik Iosu Aierza eta Pello Zabala, Donostiako Aiete auzotik ere etortzen ziren gaztetxoak igeri.

Eskolarretan hasi ziren konpetizioak eta federatu mailan ere bai. Gazteenak Jose Luis Fernandezek prestatzen zituen eta belaunaldi berri bat etorri zen: Joxemi Sánchez, Mikel Gaztelu, Gorka Sarasola, Iñigo eta Aitor Goñi, Lander Moraza, Iosu Aiertza, Lander Mokoroa, Eider Goikoetxea, Ismael Pereda, Ivan Rojas, Itxaso Zabala, Yoli Pastor, Iker Mendoza, Iker Irazu...

Elorrabi izatetik, Hernani Kirol Elkartea izatera

Hernaniar igerilariak gero eta denbora hobeak hasi ziren egiten eta aurreko belaunaldia eta hurrengoarekin emaitza onak hasi ziren etortzen. Tartean waterpolo taldea sortu zuen Iñaki Iurramendik eta Gipuzkoako lehenengo taldea eraiki zen. Kiroldegian egiten ziren kirol ezberdinak batu egin ziren eta Hernani Kirol Elkartea sortu zen 1987-88 urteetan eta Elorrabi izatetik igeriketa taldea Hernani Kirol Elkartea bihurtu zen.

Euskal Herriko igerileku guztietan aritzen ziren lehiatzen Euskal Herriko eta Gipuzkoako txapelketa ezberdinetan. Ligako probetan denak aritzen ziren eta txapelketa nagusietara joateko gutxiengo denborak zituztenak joaten ziren.

Zeharkaldietan ere hasi ziren partehartzen. 1987ko Getaria-Zarautzen hartu zuen parte taldeak lehen-dabiziko aldiz. Zeharkaldi gutxi izaten ziren, baina

Ondarroakoara ere joaten ziren hernaniarrak eta Kontxako Badiakora ere bai.

100 metro librean minututik jaitsi zuen lehenengo igerilaria Luis Goñi izan zen 1990 urtean. Bere anaia Iñigo Goñi, berriz, Espainiako Txapelketan parte hartu zuen Hernani Kirol Elkarteko aurreneko igerilaria, 1991 eta 1994 urte artean aritu zen hainbat Espainiako txapelketetan. Luisek ere zeharkaldietan emaitza onak lortzen zituen eta Ondarroakoan bi garaipen jarraian lortu zituen eta Getaria-Zarautzen bost lehen-dabizikoetan kokatzen zen. Iñigok bere ibilbidearekin jarraitu zuen eta Gipuzkoako errekorra egin zuen 1993an 50 metro bizkarren, igerileku luzean.

Urte horretan bertan aldaketak izan ziren Hernani igeriketan. 80. hamarkadaren amaieran Iñaki Iurramendik entrenatzaile izateari utzi zion eta 1992an Arantxa Urbietak ere taldea utzi zuen eta bi entrenatzaile berrik hartu zuten taldearen ardura.

Beste bi mutil gazte donostiar bihurtu ziren Hernani K.E. entrenatzaile; Arkaitz Angiozar eta Juan Alonso. Azken honek ez zuen denbora askorik egin eta hilabete batzuk egon eta gero Arkaitz Angiozar geratu zen entrenatzaile moduan. Taldeko 'beterano' askok dagoeneko talde utzi zuten eta belaunaldi berri baten txanda zen.

Olatz Altuna, Maitane Danborena eta Mañel Aizpurua, punta puntan

Igeriketaren bereizgarri handienetakoa igerilarien adina izaten da, gehienetan oso gazteak, eta zaila da 20 urte edo gehiagoko igerilaririk egotea taldeetan, batez ere urte horietan. 90. hamarkadaren erdialde-ra beste aldaketa bat egon zen kirol arloan. Arkaitz Angiozarrek Ibon Mendozari eman zion erreleboa entrenatzaile lanean.

Itxaso Zabala eta Yoli Pastorri Mikel Andres, Peru Alfaro eta Olatz Altuna batu zitzaizkien Euskal Herri mailako txapelketetan. Espainiako txapelketetan ordezkaritza izateko oraindik ere zain egon behar zen.

Igerikera aldatzen ari zen eta bainu jantzi berriak, igerileku hobeak eta entrenatzeko modu egokiagoak iritsi ziren. Hernanin aldaketa horiek ere nabaritu ziren eta hor Jon Murua zaldibirtarraren lana azpimarratzekoa izan zen. Ibon Mendoza eta gero Uxue Fraile zen entrenatzailea eta 2001garren urtean hartu zuen taldearen gidaritza Ion Muruak, 2004 urtera arte. Olatz Altunak Espainiako lehenengo gutxiengo markak lortu zituen eta urtero urtero ohikoa zen bere partaidetza Espainiako txapelketa ezberdinetan 18 urte zituenetik 2001. urtetik. Zazpi urte eta gero berriz ere hernaniar igerilariak ari ziren igeri goiko mailan.

Olatz Altunari batu ziren Oihane Sanz, Alazne Egiazabal, Itsaso Tolosa eta batez ere Mañel Aizpurua

eta Maitane Danborena. 2001 urtetik 2015 urtera arte ia urtero izan zuen Hernanik ordezkari zuzen Espainiako Txapelketan. Gainera emaitzak gero eta hobekien ziren.

Hazkundera nabaria zen eta Olatz Altuna, Mañel Aizpurua eta Maitane Danborena dominen bueltan ibiltzen ziren behin eta berriz. 2007 urtetik aurrera salto ikaragarria eman zuten Olatz Altuna eta Mañel Aizpurua. Hernaniko taldeak Fortuna talde-iraigarri izan zuten eta bertan berriz ere Jon Muruaren agindupean hasi ziren igeri. Hernanin entrenatzaile aldaketa egon zen eta Gerizpe Iraola eta Iker Bazterrikak hartu zuten 'agintea' 2004-2005 denboraldian.

Dominak Espainiakoan eta Euskadiko errekorrak

2007 urtean Altuna finalerdiaren sartzen hasi zen eta bosgarren geratu zen Espainiako txapelketan 50 libretan absoluto mailan. Mañel Aizpurua ere finalerdiaren gertu zituen eta Maitane Danborena bera ere finalerdiaren gertu zegoen junior mailan. Lehenengo biak krol estiloan ziren espezialistak eta Danborena berriz bizkar estiloan. 2008an iritsi ziren lehenengo dominak. Udaberriko Espainiako Open txapelketan Gipuzkoako errekorrak gertu izan zituen Mañel eta udan, Terrasan, lau domina irabazi zituzten Altuna eta Aizpurua. Olatzek zilarra leporatu zuen 50 metro libreetan eta Bardulia taldearekin, erreleboan, brontzea jantzi zuen 4x50 libreetan. 3 Aizpurua taldeak lortu zituen bi zilarrezko domina, 4x50 libreetan eta 4x100 estiloetan Barduliarekin. Gainera, Mañel Aizpurua lau Euskadiko errekor apurtu zituen, hoerietako bat 100 libreetan 51.46ko markarekin 50 metroko igerilekuan. Beste hiru errekorrak erreleboetan egin zituen Barduliarekin.

Hala ere, hobereana iristeko zegoen. 2008-2009 denboraldia amestekoa izan zen. Malagan Udaberriko Espainiako Open Txapelketan, Olatz Altunak 50 eta 100 libreetan parte hartu zuen eta bi frogetako finalerdiaren sartu zuen, txapelketako 8 hobereenen artean. Bi finalerdiaren postua lortu zuen. 100 metroko frogan bere denbora onena egin zuen 57.62 (aurrekoa 58.11koa zuen).

Mañel Aizpurua ez zen finalerdiaren sartu 50eko frogan, bai ordea, 100 eta 200 metrotan. 100 metrotan bere aurreko marka eta Euskadiko errekorra hobetu zituen, sailkapen saioan, 50.70ean jarritz. Hori gutxi ez, eta finalerdiaren bere marka gainditu zuen berriz 50.32an jarritz errekorra, Estatuko urteko 5garren eta inoizko 11garren markarik onena egin. Finalerdiaren 6garren postua egin zuen. 200 metrotan ere bere marka hobetu zuen eta 7garren postua lortu zuen.

Hortik astebetera, Castellonen klubaren arteko txapelketan 200 libreetan egin zuen Euskal Herriko errekorra 25 metroko igerilekuan 1.47.64ko denborarekin eta 100 metro libreetan 49:11 denborarekin, gainera proba hau irabazi egin zuen. Altunak ere egundoko denborak egin zituen eta 50 metro libree-

tan 25.22ko denborarekin ere errekorra lortu zuen. Espainiako errekorretik sei ehuneko geratu zen.

Udako Espainiako Txapelketak Las Palmasen izan ziren eta bertan domina gehiago eta errekor berriak lortu zituzten 50 metroko igerilekuan. Denboraldia ezin hobeto bukatu zuten Hernaniko igerilariak. Olatz Altunak eta Mañel Aizpurua bakarka eta taldean domina ugari lortu zituzten. Jon Murua entrenatzaileak Kronikari azaldukoaren arabera, nazioartean lehiatzeko maila dutela erakutsi zuten eta txapelketatik ateratako balorazioa oso positiboa izan zen. «Biek oso maila altua dutela eta Estatu mailan hobereenen artean daudela erakutsi dute. Nazioartean mailan lehiatzeko moduko maila dute. Oso marka onak lortu dituzte» zioen entrenatzaileak. Mañelek 100 libre frogan zilarrezko domina lortu zuen eta Euskadiko errekorra ere bai 49.75 denborarekin. Olatzek, aldiz, 50 libreetan lortu zuen zilarrezko domina eta baita Euskadiko errekorra ere, 25.94 denborarekin. Horrez gain, Maitane Danborenak lehenengo aldiz hartu zuen parte halako mailako txapelketan, eta 100 bizkar frogan finalerdiaren pasatzea lortu zuen. Bere adinekoen artean lehenengo izan zen, denen artean 16garren geratuta.

Danborenak egun batzuk lehenago adineko txapelketan domina lortu zuen. Ourensen. Danborenak brontzezko domina lortu zuen 50 bizkar frogan. Alazne Egiazabal, bestalde, 50 libre frogan lehiatu zen eta lehen aldiz txapelketa horretan emaitza txukuna lortu zuen.

Danborena hiru frogatan jardun zen eta hiruretan goizeko klasifikatoriak pasa zituen eta finalerdiaren sartu zuen. Ostegunean 100 Bizkar frogan 1.06.19ko denborarekin 6garren postua lortu ondoren, ostiralean 50 bizkar frogako finalean bere denbora onena egitea lortu zuen. Horrez gain, Euskadiko 16 urteko errekorra bitan hautsi ondoren, brontzezko domina lortu zuen.

Hernaniko igerilariak etxetik kanpo

Hurrengo urtean bainujantzien araudia aldatu zen eta 2009ko denborak ez zituzten hobetu igerilariak hurrengo urteetan. Hala ere dominak lortzen jarraitu zuten. Aizpurua eta Altuna Barduliako igerilariak ziren eta Danborena eta Egiazabal Buruntzaldekoak. Hernani Buruntzaldeko proiektuan murgildu zen Borja Apeztegia entrenatzaile zela. Itsaso Tolosa ere Espainiako Txapelketan hasi zen parte hartzen.

Gutxi iraun zuen Hernanirentzako proiektuak eta taldeak berriz ere bere kontura jarraitu zuen Jon Ander Isuskizarekin entrenatzaile lanetan. Oraindik ere bera da entrenamenduen arduraduna. Hala ere, Tolosa, Aizpurua, Danborena eta Altuna Hernanitik kanpo ari ziren igeri.

Igerilari hernaniarrek bikain hasi zuten 2009-2010 denboraldia Espainiako Neguko Txapelketan Cas-

tellonen. Olatz Altunak 4x50 metro libreko proban hartu zuen parte, Bidasoa taldeko beste hiru igerilarirekin, eta urrezko domina lortu zuen. Mañel Aizpuruak ere 4x50 metroko proban hartu zuen parte, eta brontzezko domina lortu zuen. Aizpuruak Bardulia taldeko beste hiru igerilarirekin egin zuen proba eta 1:28:44ko denbora egin zuten. Udaberrian, Mañel Aizpuru, Olatz Altuna eta Maitane Danborena igerilari hernaniarrak Malagan izan ziren Espainiar Estatuko Open Absolutoa jokatzeko eta lehenengo 15en artean ibili ziren hirurak.

Udan, Bartzelonan antolatu ziren Espainiako Txapelketak. Dominekin itzuli ziren etxera Mañel Aizpuru eta Olatz Altuna igerilari hernaniarrak. Maitane Danborenak finalera pasatzea lortu zuen parte hartutako hiru frogetan.

Aizpuruak 4x100 erreleboetako proban lortu zuen zilarrezko domina. Horrez gain, 200 metro librean eta 100 metro librean finalerako sailkatu zen.

Olatz Altunak brontzezko domina lortu zuen proba berdinean baita ere, hau da, 4x100 erreleboetan. Altunak 100 metro libre eta 50 metro libreko frogetan ere hartu zuen parte, eta bietan finalerako pasea lortu zuen.

Maitane Danborenak, Oarsoaldea taldean, 200 metro bizkar, 100 metro bizkar eta 50 metro bizkar frogetan hartu zuen parte, eta guztietan lortu zuen finalerako pasea. Itsaso Tolosa Palma Mallorkan aritu zen infantilen txapelketan.

Hurrengo denboraldian ere absoluto mailan Aizpuru, Altuna eta Danborena Espainiako Txapelketa guztietan lehiatu ziren; neguan, udaberrian eta udan. Emaitzak ez ziren izan aurreko urteetakoak bezain onak, baina puntan zebiltzan, finaletan edo gertu. Hala ere Aizpuruak eta Altunak udako txapelketan ez zuten parte hartu eta goi mailako igeriketa utzi zuten. Maitane Danborenak egin zuen igeri udan, baina denboraldi hori amaituta utzi egin zuen igeriketa.

Igerilekuan garai onenak joanda, zeharkaldietan garaipenak Goñik eta Alfarok

Igerilekuko igeriketan Master Taldea sortu zen Hernanin eta garai batean taldean ibilitako Luis, Aitor eta Iñigo Goñi anaiak Munduko Txapelketara joan ziren Hernani taldearekin Suediara, Goteborg hirira 2010 urtean, 2009an Europako Txapelketan aritu eta gero Cadizen. Luis Goñik domina lortu zuen, brontzea, hiru milako proban ur irekietan. Igerilekuan ere dominetik gertu geratu zen, Iñigo Goñi bezala, 50 eta 100 bizkarren.

Gainera Luis Goñi 2009an zeharkaldiak irabazten hasi zen Euskal Herrian eta Euskal Herrikan kanpo. 2009tik 2020 urtera, nahiz eta 36-47 urte izan urte horietan, 40tik gora zeharkaldi irabazi zituen. Zeharkaldi asko eta asko behin, bitan edo hiru

aldiz baino gehiago eta batean bat lau eta bost aldiz ere bai. Peru Alfarok ere zeharkaldiak irabazi zituen azken hamarkadan.

2015ean Munduko Master Txapelketan, Kazanen (Errusia), Iñigo eta Luis Goñik brontzezko domina lortu zuten 3.000 metrotan ur irekian. 35-39 eta 40-44 mailetan.

Igerilekuan Itsaso Tolosak Espainiako Txapelketetan erreleboa hartu zien Aizpuru, Danborena eta Altunari 2012 eta 2015 urteen artean.

Enaitz Goñik, Goñitarren familiari jarraipena eman dio arrakasta eta etorkizun handiarekin

Jon Ander Isuskizuna entrenatzaile zen eta 2013an azpimarratu zuen taldean 42 igerilari zeudela. 100 igerilaritik gora izan zituen urte oparoenetan eta ondoren 60-70 igerilari inguru mugitu zen. Talde modu apalagoan ari da lehiatzen, baina oraindik maila altuko igerilariak pasa dira Hernanitik eta hernaniar direnak.

Horietako bat izan da Enaitz Goñi. 2014an hasi zen Hernani taldean igeri eta bertan bi urte egin eta gero Fortuna taldera pasa zen. Urtez urte asko hobetu du eta azken hiru urteetan Espainiako Txapelketarako gutxiengo edo marka minimak lortu ditu. Gainera pausoz pauso, 16 urterekin, junior mailan finalerako sailkatu da eta kontuan hartzeko denborak egiten hasi da. Horri gehitu behar zaio zeharkaldietan duen maila altua. Azken udan bi irabazi ditu eta gaur egun Euskal Herriko fondistarik onena edo onena izatetik gertu dagoela esan liteke. Aurtengo denboraldia benetan izango da interesgarria Tolosaldea taldean bere ibilbidean eta gertutik jarraitzeko. Gainera, Olatz Altuna eta Mañel Aizpuruarekin gertatu bezala Jon Murua du entrenatzaile.

Igerilekua berriro zen 2017an

Hernaniko igeriketan beste mugarri bat igerilekuaren berrikuntza izan zen 2017an. Garai berrietara egokitu da eta bost kale izatetik zortzi kale izatera pasa da eta horrek asko lagundu dezake kirolaren garapenean.

Hernani taldean azken urtean gazte mordoia hasi da igerian eta txapelketetan azken bost urteetako partaidetzarik handiena izango du Hernan Hernanik. Ariak ez du etenik eta igeriketak jarraituko du herrian orain 37 urte hasi zuen ibilbideari jarraitasuna emanez.

